IBILBIDE / ITINERARIO GORLIZ

# ASTONDO BILLANO ERMUA







| | | |
|---|---|---|
| **IBILBIDE** | ASTONDO-BILLANO-ERMUA | RECORRIDO |
| **GUTXI GORABERA DISTANTZIA** | 6,4 km. | DISTANCIA APROXIMADA |
| **DESNIBELA** | 290 m. | DESNIVEL |
| **GUTXI GORABERA DENBORA** | 2,30 h. | TIEMPO APROXIMADA |
| **ZAILTASUNA** | **ERREZA-ERTAINA** / BAJA-MEDIA | DIFICULTAD |

**INFORMAZIO GEHIAGO:**
MÁS INFORMACIÓN:

T. 94 677 43 48
turismo@gorliz.net
**www.gorliz.eu**

**SINALEAK:**
SEÑALES:



| | | |
|---|---|---|
| **ZIDORRAREN JARRAIPENA** CONTINUIDAD DEL SENDERO | **NORABIDE ALDAKETA** CAMBIO DE DIRECCIÓN | **OKERREKO NORABIDEA** DIRECCIÓN EQUIVOCADA |

## ARAUAK:

- IBILTEA GUSTETAN JAKON EDONORK EGIN DAIKEZ IBILBIDEAK, EZ DA APARTEKO SASOI FISIKORIK BEHAR, EZTA ADIN ZEHATZIK BE. **BOTA EROSOAK ETA ERROPA EGOKIA BAINO EZ DIRA BEHAR, EURIA EGINGO BALEU**.
- **EZ URTEN INOZ BAKARRIK** ETA, URTEN AURRETIK, ESAN NORA ZOAZEN ETA NOIZ BUELTAUKO ZARAN.
- IBILBIDEA NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA EDO BASOZAINTZARAKO ERABILTEN DIRAN BIDE ETA BASABIDEETAN ZEHAR DOA. ATAKAK TOPAU DOZUZAN MODUAN ITXI ETA **ERRESPETAU BIZTANLEEN BIDEAK** ETA JABETZAK, GU HAN EGON GARALAKO KEXAU EZ DAITEZAN.
- **ARGAZKIA DA GOMUTAPENIK ONENA**. EZ KENDU LORERIK EZ ADARRIK, ETA EZ MOLESTAU LARRAN DABILZAN ANIMALIAK, EZTA GANERAKO FAUNEA BE. HOLAN, DANOK IKUSI AHAL IZANGO DOGUZ.
- **ZURE TXAKURRA KONTROLPEAN EROAN**, GANADUA EDO BESTE ANIMALIA BATZUK MOLESTAU EDO IKARATU EZ DAIZAN.
- **EZ EGIN SURIK ETA EZ ITXI SASTARRIK** BATZE-LEKUETATIK KANPO. JAGON NATUR GUNEAK, ETORKIZUNEKO BELAUNALDIEK BE HORREETAZ GOZETAKO AUKEREA EUKI DAIEN.

## NORMAS:

- CUALQUIER PERSONA QUE DISFRUTE DEL PASEO PUEDE REALIZAR LOS ITINERARIOS, NO SE REQUIEREN UNAS CONDICIONES FÍSICAS EXCEPCIONALES NI UNA EDAD DETERMINADA, TAN SÓLO SE NECESITAN UNAS **BOTAS CÓMODAS Y ROPA ADECUADA EN CASO DE LLUVIA**.
- **NUNCA SALGAS SÓLO** Y DEJA DICHO A DÓNDE VAS Y CUANDO VUELVES.
- EL RECORRIDO DISCURRE POR CAMINOS Y SENDAS QUE ESTÁN EN USO PARA TAREAS AGRÍCOLAS, GANADERAS O FORESTALES. DEJA LOS PORTILLOS COMO LOS HAS ENCONTRADO, **RESPETA LOS CAMINOS Y PROPIEDADES** DE LOS HABITANTES PARA QUE NO LAMENTEN NUESTRA PRESENCIA.
- **UNA FOTOGRAFÍA ES EL MEJOR RECUERDO**. NO ARRANQUES FLORES, NI RAMAS, NI MOLESTES A LOS ANIMALES QUE PASTAN NI AL RESTO DE LA FAUNA, Y ASÍ TODOS LOS PODEMOS OBSERVAR.
- **LLEVA A TU PERRO BAJO CONTROL** PARA QUE NO MOLESTE NI ASUSTE AL GANADO U OTROS ANIMALES.
- **NO HAGAS FUEGO NI ABANDONES BASURA** FUERA DE LOS PUNTOS DE RECOGIDA. CUIDA LOS ESPACIOS NATURALES PARA QUE LAS GENERACIONES FUTURAS TAMBIÉN PUEDAN DISFRUTARLOS.

Uribe · Gorliz · EUSKADI · Bizkaia

GORLIZKO KOSTALDEAK LAU KILOMETROTIK GORAKO LUZEREA DAUKA ETA NATUR BALIO HANDIKOA DA. IZAN BE, AZALERA TXIKI BATEAN EUSKAL KOSTALDEKO HABITAT ETA ELEMENTU GEOGRAFIKO ADIERAZGARRIENETARIKOAK TOPAU DAITEKEZ. PROPOSATZEN DEUTSUGUN IBILBIDEAN ZEHAR, NATURA-, PAISAJE- ONDARE- ETA KULTURA-ELEMENTUEN MULTZO INTERESGARRI BATEZ GOZAU AHAL IZANGO DOZU, ETA HORI GUZTIA INGURU BIKAINEAN.

IBILBIDEA NORABIDE-SEINALEZ ADIERAZOTA DAGO, BAINA NORANZKO BIETAN EGIN DAITEKE, GURA DAN IRAUPENAGAZ. IZAN BE, LOTUNE ASKO DAGOZ BESTE UDAL-BIDE BATZUKAZ ETA BIDE HORREEK AUKEREA EMOTEN DEUTSIE IBILTARIARI BERAK GURA DAUAN BIDEA HARTZEKO, LEHENTASUNEN ARABERA.

01 IBILBIDEA **GORLIZKO HONDARTZAREN** MUTURREAN HASTEN DA, BIZKAIKO KOSTALDEKO EDERRENETARIKOA ETA TRANKILENETARIKOA DA. OSKOL FORMAKO BADIA ZABALA DAUKA ETA BADIA HORREK HANGO URAK BABESTEN DAUZ. HORI DALA-ETA, UR HORREEK EZIN HOBEAK DIRA URPEKARITZEA ETA IGERIKETEA EGITEKO. BADIAREN INGURUAN, NATURA, PAISAJE ETA AISIA-ESKAINTZA ZABALA DAGO, BAI ETA MENDI-IBILIAK EGITEKO AUKEREA BE. LEKURIK AIPAGARRIENAK ITSAS IBILTOKIA, GORLIZKO OSPITALEA ETA ASTONDOKO DUNAK DIRA.

02 ASTONDO ALDEAN, EUSKAL KOSTALDEAN BAKANA DAN FENOMENOA IKUSI GEINKE, BATA BESTEAREN GANEAN DAGOZAN GERUZEZ OSOTUTAKO **DUNA FOSILEN** MULTZO ZABALA; HAIZEAK HAINBAT MENDEZ HONDARTZAKO HAREA EROAN DAU ETA, HORREN ERAGINEZ, GERUZA ETA DUNA HORREEK SORTU DIRA. DUNA HORREEK ERKIDEGORAKO INTERESA DUEN LEKUTZAT KATALOGATUTA DAGOZ RED NATURA 2000REN BARRUAN ETA, BILLANO ISLEAGAZ BATERA, NATUR GUNE IZENDATUAK IZATETIK HURRE DAGOZ, BIOTOPO BABESTU IZENDAPENAGAZ.

03 IBILBIDEAK ASTONDOKO DUNEN ALBOTIK GORA EGITEN DAU ITSASERTZETIK, ESKILARATARTE BATZUETATIK ETA BEGIRATOKI PANORAMIKOTATIK PASETAN DA. AZKENEKO BEGIRATOKITIK, **AZKORRIAGAKO GOTORLEKUAREN AZTARNAK** IKUSTEN DIRA. GOTORLEKU HORI XVIII. MENDEAN EREGI ZAN, BADIA DEFENDIDUTEKO. AZKORRIAGAKO KOKALEKUA HARTZEA GATXAGOA DA LEHORRERATZEA GERTATZEN BADA: ITSASOAN BARRURATZEN DAN LUR-MIHIN TXIKIA DA, ETA HARA HELTZEA GATXA DA. GORAGOTIK IKUSTEN DAUZ BADIA ETA PLENTZIAKO PORTURAKO SARREREA ETA, ONDORIOZ, AURREKO DEFENSEK BAINO IKUSPEN HOBEA DAUKA. GOTORLEKUAREN INGURUAN EDERTASUN MALKARTSUKO PAISAJEA IKUSI DAITEKE: BABESLEKU NATURALAK, HELTZEKO GATXAK DIRAN KALAK, DENPOREAK HIGATUTAKO ARROKAK ETA BADIA HANDIAK.

04 ORAIN GAGOZAN LEKUTIK, IBILBIDEA SEGIDUTEKO AUKEREA DAUKAGU, EDO BARRIRO BE HASIKERARA BUELTAU GAITEKEZ. HASIKERARA BUELTETAKO, ESKUMARANTZ DOAN BIDEA HARTU BEHAR DOGU. BIDE HORREK **FORU ETXALDEKO**, ABEREAK AUKERATU ETA HOBETZEKO HAINBAT BEHAR EGITEN DIRA, ETA FAUNA BASATIA SENDATZEKO ZENTROKO INSTALAZINOETARA EROANGO GAITU. 70 HEKTAREA ZELAI BERDEK BAINO GEHIAGOK INGURATZEN DABE FORU ETXALDEA ETA, ZELAI HORREETAN, GURE ARRAZA AUTOKTONOETAKO ANIMALIA EDERRAK IKUSI GEINKEZ, BAZKATZEN: POTTOKA, PIRINIOETAKO BEHIA ETA TERREÑA ARRAZAKO BEHIA.

05 GORA EGITEN SEGIDUKO DOGU, KOSTALDEKO HEGALEN ARTEAN, IBILBIDE HONETAKO PROTAGONISTEA DAN ELEMENTURANTZ: **GORLIZKO ITSASARGIA**. HAREN TORRE ZURIA 21 METRO ALTU DA, ETA KRISTALEZKO LINTERNA BAT DAUKA GOIKO MUTURREAN. 165 METROKO ITSASLABAR IKARAGARRI BATEN GANEAN DAGO ETA, ONDORIOZ, KANTAURIKO ERLAITZEKO ITSASARGIRIK ALTUENA DA; 29 MILIAKO HELMENA DAUKA.

06 ITSASARGIAREN ALBOKO BIDETIK BEHERA EGITEN BADOGU, HEGAL GUZTIA **KOSTAKO ANTXINAKO BATERIA** BATEK ZULOTUTA DAGOALA IKUSIKO DOGU. BATERIA HORI 40. HAMARKADEAREN INGURUAN INSTALAU EBEN HOR ETA, EZ ZEN IÑOIZ ERABILI. INSTALAZINOAK HIRU BATERIA EUKAZAN, MAILAKATUTAKO TARTE ERREGULARRETAN ANTOLATUTA. BATERIAK LURRAZPIKO GALERIEN BIDEZ EGOZAN KONEKTAUTA ETA AGINTE-POSTUA MULTZOKO LEKURIK ALTUENEAN EGOAN. AZKEN BUNKERRETIK PISU HANDIKO KAINOI BATEN HONDAKINAK IKUSI DAITEKEZ.

07 ITSASARGITIK, IBILBIDEA SEGIDUKO DOGU. HORRETARAKO, KOSTALDEKO ARTADIEN ARTETIK EKIALDERANTZ DOAN BASABIDEAHARTUKO DOGU, **ERMUA MENDIAN** GORA, GAILURRERAINO (289 M). ERMUA MENDIA HAINBAT TONTOR DAUKAZAN MENDIGUNE TXIKIA DA ETA TONTOR HORREEK ITSASORAINO BAJATUTEN DIRA ZUZENEAN, 200 METROTARAINO ITSASLABAR HANDIAK SORTUZ. ITSASLABAR HORREEN ARTEAN, TARTEKA, KALA TXIKIAK AGERTZEN DIRA. ERMUA MENDIKO TONTORRAK BISTA EDERRAK ESKAINTZEN DEUSKU. EGUN ARGIZ, GORBEIA ETA OIZ MENDIAK ETA KOSTALDERA BEGIRATUTA, MATXITXAKO EKIALDEAN ETA KANTABRIAKO MENDIAK MENDEBALDEAN IKUSI DAITEKEZ.

08 GURE AURREAN **BILLANO ISLA** TXIKI ARROKATSUA AURKITZEN DA. ISLEAK ETXUNDUTA DAGOAN DRAGOIAREN FORMA BEREZIA DAUKA, URETATIK URTETEN. GEOLOGIA- ETA PAISAJE- BALIO HANDIA DAUKA ETA HEGAZTI MIGRATZAILEEK HABIAK EGIN ETA ATSEDEN HARTZEKO LEKU GARRANTZITSUA DA. HORREGATIK, NATUR GUNETZAT HARTU ETA BABESTEKO AHOLKUA EMON DABE.

09 ERMUA MENDITIK, EKIALDERANTZ SEGIDU GEINKE, ARMINTZARANTZ. HALANDABE, GURE IBILBIDEAN HASIKERAKO PUNTURA BUELTAUKO GARA, ASTONDORA, **FANOKO ZELAIAK** ZEHARKATUZ, PAISAJE EDERRA ESKAINTZEN DABEN ARTE ETA BELARDI ARTETIK.

01



02



03



04



05 08



06



07 09



LA ZONA COSTERA DE GORLIZ, CON UNA LONGITUD DE MÁS DE CUATRO KM., ES UN ÁREA DE GRAN VALOR NATURALÍSTICO, EN LA QUE SE PUEDEN ENCONTRAR EN UNA PEQUEÑA EXTENSIÓN VARIOS DE LOS HÁBITATS Y ACCIDENTES MÁS REPRESENTATIVOS DEL LITORAL VASCO. TE PROPONEMOS UN ITINERARIO PARA DISFRUTAR DE UN INTERESANTE CONJUNTO DE ELEMENTOS NATURALES, PAISAJÍSTICOS, PATRIMONIALES Y CULTURALES CONSERVADOS EN UN ENTORNO EXCEPCIONAL.

EL RECORRIDO ESTÁ SEÑALIZADO MEDIANTE MARCAS DIRECCIONALES, PERO SE PUEDE REALIZAR EN UNO U OTRO SENTIDO, Y CON LA DURACIÓN QUE SE DESEE, YA QUE EXISTEN NUMEROSAS CONEXIONES CON OTROS CAMINOS MUNICIPALES QUE DAN LA POSIBILIDAD AL CAMINANTE DE ELEGIR EL TRAMO A RECORRER SEGÚN SUS PREFERENCIAS.

01 EL ITINERARIO SE INICIA EN EL EXTREMO DE LA **PLAYA DE GORLIZ**, UNA DE LAS MÁS BELLAS Y TRANQUILAS DE LA COSTA BIZKAINA. UNA AMPLIA BAHÍA CON FORMA DE CONCHA PROTEGE SUS AGUAS Y LAS HACE IDEALES PARA LA PRÁCTICA DEL BUCEO Y NATACIÓN. EN TORNO A LA BAHÍA SE CONCENTRA UNA AMPLIA OFERTA DE NATURALEZA, PAISAJE, SENDERISMO Y ESPARCIMIENTO CON EL PASEO MARÍTIMO, EL HOSPITAL DE GORLIZ Y LAS DUNAS DE ASTONDO COMO LUGARES DE REFERENCIA.

02 EN LA ZONA DE ASTONDO PODEMOS CONTEMPLAR UN FENÓMENO ÚNICO EN LA COSTA VASCA, UN AMPLIO CONJUNTO DE **DUNAS FÓSILES**, FORMADAS POR DIFERENTES CAPAS SUPERPUESTAS POR LA ACCIÓN DEL VIENTO, QUE HA ARRASTRADO DURANTE SIGLOS LA ARENA DE LA PLAYA. LAS DUNAS ESTÁN CATALOGADAS DENTRO DE LA RED NATURA 2000 Y, JUNTO A LA ISLA DE BILLANO, SE ENCUENTRAN PRÓXIMAS A SER DECLARADAS ESPACIO NATURAL BAJO LA FIGURA DE BIOTOPO PROTEGIDO.

03 JUNTO A LAS DUNAS ARRANCA EL CAMINO QUE ASCIENDE BORDEANDO LA COSTA MEDIANTE VARIOS TRAMOS DE ESCALERA, PASANDO POR MIRADORES PANORÁMICOS. DESDE EL ÚLTIMO DE LOS MIRADORES SE DIVISAN LAS **RUINAS DEL FORTÍN DE AZKORRIAGA**, CONSTRUIDO EN EL S. XVIII PARA LA DEFENSA DE LA BAHÍA FRENTE A POSIBLES INCURSIONES ENEMIGAS POR MAR. EL ESTRATÉGICO EMPLAZAMIENTO DE AZKORRIAGA LO HACE MUY DIFÍCIL DE TOMAR EN CASO DE DESEMBARCO: SE TRATA DE UNA PEQUEÑA LENGUA DE TIERRA DE COMPLICADO ACCESO QUE SE INTERNA EN EL MAR, DOMINANDO LA BAHÍA Y LA ENTRADA AL PUERTO DE PLENTZIA. EL ENTORNO DEL FORTÍN, CON REFUGIOS NATURALES, CALAS DE DIFÍCIL ACCESO, ROCAS EROSIONADAS POR EL TIEMPO Y GRANDES ENSENADAS, PRESENTA UN PAISAJE DE ABRUPTA BELLEZA.

04 DESDE DONDE NOS HALLAMOS TENEMOS LA OPORTUNIDAD DE CONTINUAR EL ITINERARIO O VOLVER AL PUNTO DE PARTIDA DESVIÁNDONOS PARA TOMAR EL CAMINO QUE, HACIA LA DERECHA, NOS CONDUCE A LAS INSTALACIONES DE LA **GRANJA FORAL**, DONDE SE LLEVAN A CABO DISTINTOS TRABAJOS DE SELECCIÓN Y MEJORA GANADERA Y DEL CENTRO DE RECUPERACIÓN DE FAUNA SILVESTRE DE BIZKAIA. EN ESTOS VERDES PRADOS, CON UNA SUPERFICIE MAYOR DE 70 HAS, PASTAN MAGNÍFICOS EJEMPLARES DE NUESTRAS RAZAS AUTÓCTONAS COMO EL PONI VASCO-POTTOKA, Y EJEMPLARES DE VACUNO PIRENAICO Y TERREÑO.

05 NUESTRO ITINERARIO CONTINÚA ASCENDIENDO ENTRE LADERAS LITORALES HACIA EL ELEMENTO PROTAGONISTA DE ESTE RECORRIDO: EL **FARO DE GORLIZ**. SU BLANCA TORRE, DE DISEÑO VANGUARDISTA, CUENTA CON 21 METROS DE ALTURA Y ESTÁ SITUADA SOBRE UN IMPRESIONANTE ACANTILADO DE 165M, LO QUE LO CONVIERTE EN EL FARO MÁS ALTO DE LA CORNISA CANTÁBRICA, CON UN ALCANCE DE 29 MILLAS.

06 DESCENDIENDO POR EL CAMINO JUNTO AL FARO PODEMOS COMPROBAR QUE TODA LA LADERA ESTÁ HORADADA POR UNA **ANTIGUA BATERÍA DE COSTA**, QUE SE INSTALÓ EN ESTE LUGAR HACIA LA DÉCADA DE LOS 40 Y NUNCA SE LLEGARON A UTILIZAR. LA INSTALACIÓN CONSTABA DE TRES BATERÍAS, CONECTADAS ENTRE SÍ POR GALERÍAS SUBTERRÁNEAS, Y UN PUESTO DE MANDO EN EL LUGAR MÁS ALTO DEL CONJUNTO. DESDE EL ÚLTIMO BUNKER SE PUEDEN VER LOS RESTOS DE UN PESADO CAÑÓN.

07 DESDE EL FARO EL PASEO CONTINÚA TOMANDO LA SENDA QUE, ENTRE ENCINARES COSTEROS, SE DIRIGE AL ESTE REMONTANDO HASTA LA CIMA DEL **MONTE ERMUA** (289M). ERMUA CONSTITUYE UN PEQUEÑO MACIZO CON VARIAS CIMAS QUE CAEN DIRECTAMENTE AL MAR, FORMANDO GRANDES ACANTILADOS DE HASTA 200 METROS DE ALTURA, QUE SE ALTERNAN CON PEQUEÑAS CALAS. LAS VISTAS DESDE SU CIMA SON ESPLÉNDIDAS Y EN UN DÍA CLARO PODEMOS DIVISAR DESDE GORBEIA HASTA OIZ Y LA COSTA HASTA MATXITXAKO AL ESTE Y LOS MONTES DE CANTABRIA AL OESTE.

08 FRENTE A NOSOTROS SE ENCUENTRA LA **ISLA DE BILLANO**, PEQUEÑO Y ROCOSO ISLOTE CON UNA PECULIAR FORMA DE DRAGÓN RECOSTADO EMERGIENDO DE LAS AGUAS. SU ALTO VALOR GEOLÓGICO, PAISAJÍSTICO Y SU IMPORTANCIA COMO LUGAR DE ANIDAMIENTO Y DESCANSO PARA LAS AVES MIGRATORIAS HAN SIDO DETERMINANTES PARA ACONSEJAR SU PROTECCIÓN COMO ESPACIO NATURAL.

09 DESDE EL MONTE ERMUA TENEMOS LA POSIBILIDAD DE CONTINUAR HACIA EL ESTE, EN DIRECCIÓN A ARMINTZA. NUESTRO ITINERARIO SIN EMBARGO VUELVE AL PUNTO DE PARTIDA EN ASTONDO, CRUZANDO LAS **CAMPAS DE FANO** POR UN HERMOSO PAISAJE ENTRE PRADOS Y ENCINAS.